567

EBAZPENA, 2005eko abenduaren 30ekoa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2005eko maiatzaren 18ko Agindua aplikatuz itunpeko ikastetxeek egindako gastuak finantzatzeko emandako diru-laguntzen berri ematen duena.

Aztertu dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2005eko maiatzaren 18ko Agindua. Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeari jarraituz, itunpeko ikastetxeetan sarbideak trabatzen dituzten oztopoak kentzeko diren obrak egiteko diru-laguntzetarako deia egiten da bertan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak itunpeko ikastetxeetan behar bezala eskolatzeko.

Aurkeztutako eskabideak, ebaluatutako txostenak, 2005eko maiatzaren 18ko Aginduaren hamargarren artikuluan ezarritako lehentasun-irizpideak eta Agindu bereko bederatzigarren artikuluari jarraituz eratutako Batzordeak bidalitako ebazpen-proposamena ere aztertu ditugu. Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuari jarraituz (2000ko ekainaren 12ko EHAA) arkitektura-oztopoak kentzeko egindako inbertsioen gastuak finantzatzeko eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko tokiak egokitzeko diru-laguntzak ematea Ebazpen honetako I. eranskinean aipatzen diren ikastetxeei. Ikastetxeei emango zaien diru-kopurua ere eranskin horretan azaltzen da.

Bigarrena.– Diru-laguntzetarako deialdia egiten duen 2005eko maiatzaren 18ko Aginduko hamabosgarren artikuluari jarraituz esleitutako diru-laguntzak jasoko dituzte ikastetxe onuradunek.

Hirugarrena.– Eskatutako agiriak ez badira aurkezten 2005eko maiatzaren 18ko Aginduko hamabosgarren artikuluan zehaztutako epean, emandako diru-kopurua eta dagozkion berandutzako interesak itzultzeko agindu ahal izango du Hezkuntza Administrazioko Zuzendaritzak, deialdiko hamazazpigarren artikuluari jarraituz. Horrez gain, kasuan kasuko erantzukizunak ere eskatu ahal izango dira.

Laugarrena.– II. eranskineko ikastetxeei diru-laguntzak ukatzea, 2005eko maiatzaren 18ko Aginduan eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik.

567

RESOLUCIÓN de 30 de diciembre de 2005, del Viceconsejero de Administración y Servicios, por la que se da publicidad a la concesión de subvenciones para la financiación de gastos de inversión en centros concertados, en aplicación de la Orden de 18 de mayo de 2005 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

Vista la Orden de 18 de mayo de 2005 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para gastos destinados a obras encaminadas a eliminar los obstáculos que dificultan el acceso, de acuerdo con la Ley 20/1997 para la Promoción de la Accesibilidad, para la correcta escolarización del alumnado con necesidades educativas especiales en los centros docentes concertados.

Vistas, así mismo, las solicitudes presentadas, los informes evaluados, los criterios de preferencia señalados en su artículo décimo de la Orden de 18 de mayo de 2005 y la propuesta de resolución elevada por la Comisión formada de acuerdo con el artículo noveno de la misma Orden,

RESUELVO:

Primero.– Conceder ayudas para la financiación de gastos de inversión destinados a la eliminación de barreras arquitectónicas, según Decreto 68/2000 de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre «Condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación» (BOPV de 12 de junio de 2000), para la correcta escolarización de alumnos con necesidades educativas especiales, a los centros y por los importes que se mencionan en el anexo I a la presente.

Segundo.– Los centros beneficiarios de ayudas, percibirán la cantidad adjudicada de acuerdo con el artículo quince de la Orden de 18 de mayo de 2005 por la que se convocan ayudas.

Tercero.– Si transcurridos los plazos mencionados en dicho artículo quince, no se presentase la documentación exigida, la Dirección de Administración Educativa, de acuerdo con el artículo diecisiete de la Orden de 18 de mayo de 2005, podrá ordenar el reintegro de las cantidades libradas, con los intereses de demora correspondientes, sin perjuicio de las responsabilidades que, en su caso deban exigirse.

Cuarto.– Denegar las subvenciones a los centros que se relacionan en el anexo II, por no adecuarse a los requisitos de la convocatoria recogidos en la Orden de 18 de mayo de 2005.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, Ebazpen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko apean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 30a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes desde su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2005.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

Ikastetxea *Centro*	Herria *Localidad*	Lurraldea *Territorio*	Diru-laguntzaren zenbatekoa *Importe subvención* (euroak/*euros*)
CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	402,88
CPEIPS Colegio Hogar San José HLBHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	9.570,18
CPEIPS Virgen Niña HLBHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	4.357,30
CPEIPS Maristas San Miguel HLBHIP	Zalla	Bizkaia	7.068,16
CPEIPS San Juan Bosco HLBHIP	Barakaldo	Bizkaia	1.474,22
CPEIPS Salesianos de Deusto HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	2.653,38
CPEIPS Kirikiño Ikastola HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	36.930,26
CPEIPS Ntra. Sra. de la Antigua HLBHIP	Orduña	Bizkaia	1.202,16
CPEIPS Colegio Basauri HLBHIP	Basauri	Bizkaia	476,78
CPEIPS La Salle-Berrozpe HLBHIP	Andoain	Gipuzkoa	17.569,54
CPEIPS La Salle-San José HLBHIP	Beasain	Gipuzkoa	9.130,18
CPEPS Aranzadi Ikastola HLBHIP	Bergara	Gipuzkoa	4.181,70
CPEIPS Mariaren Bihotza Ikastola HLBHIP	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	383,54
CPEIPS Ekintza HLBHIP	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	20.616,70
CPEIPS Orioko Herri Ikastola HLBHIP	Orio	Gipuzkoa	6.351,64
CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	Oiartzun	Gipuzkoa	53.598,78
CPEIPS Laskorain Ikastola HLBHIP	Tolosa	Gipuzkoa	10.336,60
		Total	186.304,00

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

Ikastetxea *Centro*	Herria *Localidad*	Lurraldea *Territorio*
CPEIPS Ntra. Sra. de las Mercedes HLBHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba/*Álava*
CPEIPS Resurrección M.ª de Azkue Ikastola HLBHIP	Lekeitio	Bizkaia
CPEIPS Lauaxeta Ikastola HLBHIP	Amorebieta-Etxano	Bizkaia
CPEIPS San Benito Ikastola HLBHIP	Lazkao	Gipuzkoa